

BEREIZI MATERIA ORGANIKOA, ZAINDU GURE LURRA

comarcasanguesa.es



HONDAKINETIK BALIABIDERA, EMAIOZU BIZIA ORGANIKOARI!

Materia organikoaren kudeaketa selektiboak –edukiontzia marroia- edo konpost-ontzien bidez– Zangozaldeko Mankomunitateak gure ingurumen-ondarea babesteko eta aldaketa klimatikoaren aurka jarduteko duen konpromisoari erantzuten dio.

Gida honek materia organikoa balioesteko informazioa eskaintzen du: zer hondakin jotzen diren organiko, gure etxeetan nola bereizi behar ditugun eta baliabide bihurtzeko, hots, konpost bihurtzeko, nola kudeatu ditzakegun.

Pertsonen jokabidean dago gakoa, gurea da erantzukizuna.

ZERGATIK BEREIZI ORGANIKOA?

Onura handiak lortzen ditugulako...

- ✔ Konposta lortzen dugu, laborantzako lurren baldintzak hobetzen dituen.
- ✔ Lurzoruak, ibaiak eta akuiferoak kutsatzea saihesten dugu.
- ✔ CO₂aren eta berotegi-efektuko beste gas batzuen emisioak murrizten ditugu.
- ✔ Dirua aurrezten dugu, zaborte-egian utzitako tona bakoitzeko penalizazioa murrizten baitugu.
- ✔ Itzulera ekonomikoa ahalbidetzen dugu, hondakinen kudeaketa hobetzeko pizgarri eta laguntzei esker.





...eta, gainera, lege-eskakizunak bete behar ditugu.

Ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak, Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoak, biohondakinen gaikako bilketa egitera behartzen du 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, helburu honekin: **2027. urterako, % 70 gaika biltzea, inpropioak gehienez ere % 10 izanik.**

Inpropioak frakzio organikoarekin batera bota behar ez diren hondakinak dira. Hondakinak nahasiz gero, ezin dira kalitatez tratatu; funtsezkoa da, beraz, gure etxeetan behar bezala bereiztea.

Gure abiapuntua

Gure mankomunitateko pertsona bakoitzak 460 kg hondakin sortzen ditu urtean, batez beste.

2020an, 4.385 tona hondakin bildu genituen. Kopuru horretatik ia erdia (% 45) materia organikoa da; orain, edukiontzi marroira bota behar dugu, ondoren balorizatu ahal izateko, beste edukiontzieta (beira, ontziak, kartoia, olio eta arropa) hondakinekin jada egiten dugun bezala.

Materia organikoa etxeko konposta-gailuetan eta komunitarioetan kudeatu dezakegu ere bai, konposta gure baratze, lorategi edo loreontzietan erabili asmoz.



HONDAKINIK ONENA, SORTZEN EZ DENA.

Hondakinen prebentzioa hutsezinezko bidea da baliabideen erabileran eraginkortasuna hobetzeko eta ingurumenean duten eragina murrizteko.

2027rako erronka 2010ean baino % 12 hondakin gutxiago sortzea da. 2020an 2010ean baino % 8,45 gehiago sortu genuen; beraz, 2027ko helburua lortu ahal izateko, pertsona bakoitzak urtean 88,56 kg hondakin gutxiago sortu beharko ditu.

Jasangarritasuna sustatzeak, hala ekoizpenean nola kontsumoan, asko laguntzen du hondakinen prebentzioan.

Elikagaiak alferrik galtzea horren adibide garbia da. Kalkuluen arabera, 115.000 tona elikagai baino gehiago bilakatzen dira zabor Nafarroan urtean. Horretatik % 42 etxeetan gertatzen da; beraz, pertsona bakoitzak 75 kilo janari inguru alferrik galtzen ditu urtean.



**Helburu hau dugu
2027rako: sortutako
hondakinak %12
murriztea**

=

- 88'56 kg/pertsona/urte



**“Janaria ala zaborra?
Zuk aukeratu”**

EGIN BORROKA ERREFUSARI, ORGANIKOAREKIN IRABAZI.

Ohiko edukiontzi berdea –zabor “arrunta”– ez da existitzen jada. Horren ordez, EDUKIONTZI GRISA dugu, errefusa jasotzen duena.

Frakzio hori hondakinen portzentaje oso txikia da, guztizkoaren % 15 gutxi gorabehera, eta gaur egun ez dago balorizazio-prozesurik haietarako; beraz, zabortegian bukatuko dute, eta horrek ondorioak izango ditu ingurumenean.



**¿Zein hondakin
bota behar dut
hemen?**

Zigarrokinak, konpresak,
pixoihalak, eskobatu edo
xurgatutako hondarrak,
animalien gorozkiak, erabiliko
ez diren garbiketa-materialak.

Edukiontzi grisa → errefusa

EDUKIONTZI BERRI BAT BIZI DA GURE KALEETAN: MARROIA

Zer hondakin bota dezaket 5. edukiontzira?

- ✓ Fruta- eta barazki-hondarrak
- ✓ Kozinatutako elikagaien hondarrak eta haragi- edo arrain-hondarrak
- ✓ Ogia (zatitan) eta opilak, fruitu lehorren hondarrak eta pipitak, arrautza-oskolak, itsaski-oskolak eta -maskorrak, egoera txarrean dagoen janaria
- ✓ Kafe-hondarrak eta -iragazkiak, infusioak eta sukaldeko papera edo paperezko ezpainzapiak
- ✓ Hostoak, loreak, landare berdeak edo lehorrak
- ✓ Baratze-hondarrak, soropila, hostoak eta inausketa-zatiak (xehe-xehe eginda)

BAI



**5. edukiontziak materia
organikoa ez den beste
ezer ez du onartzen.**

Materia organikoan inpropioak izateak gure lurzorua eta laboreak kutsatzen ditu, tratamendua zaildu eta garestitzeaz gain.

EZ

- ✗ Pixoihalak, konpresak, tanpoiak eta paper-zapi bustiak
- ✗ Zigarrokinak
- ✗ Eskobatu edo xurgatutako hondakinak
- ✗ Animalien gorozkiak
- ✗ Buztina eta zeramika
- ✗ Zurezko objektuak



KONPOSTATZEA

Zer da?

Hondakin organikoei deskonposizio prozesu kontrolatu bat egitea, horixe da konpostatzea. Naturan gertatzen den prozesuaren bertsio azeleratua da, humusa sortu eta luzoruaen kalitatea bermatzen duena.

Konpostari esker lurrari elikagaiak eta ongarriak atxikitzea lortzen dugu, baita bere egitura fisikoa hobetu eta higadura murriztu ere. Halaber, lurra, airea eta landareen arteko elkartrukaketa eta lurzoruaen pH-a erregulatzen du.

Edukiontzi marroian jasotako materia organikoa konpostajearen bidez tratatzen ahalko da.





Etxe eta auzo-konposta

Etxe konpostajearen bidez, janari-, inausketa- eta lorezaintza-hondakinak eraldatu egiten dira, gure lursailean edo lorategian bertan jarritako konpost-ontzi batean.

Auzo-konposta edo konpostaje komunitarioa etxe konpostaren berdina da. Kasu honetan konpost-ontziak eremu publiko edo komunetan jarri eta hainbat etxek aldi berean erabiltzen dituzte.

Konpostatzeko modu hauei esker, hondakin organikoak sortzen diren leku erean kudeatu eta erabiltzen dira. Ondorioz, hondakinen garraioak eragiten duen kutsadura sahiesten da.

Hondakin organikoak etxean konpostatu ditzakegu. Informazioa eta materialak jasotzeko, eman izena mankomunitatean



OINARRIZKO ARAUAK:

Konpost-ontzia lurra edo belarraren gainean jarri. Hezetasuna kontrolatzeko, hondakinen materia hezea beste zati lehor batekin nahastu (kimaketa hondarrak, adibidez) eta meta aireztatu.

GAINONTZEKO BILKETAK

Beste hondakinak nola bereizi eta zein edukiontzian bota behar ditugu?

Ontziak

- ✓ Plastikozko ontzi eta poltsak
- ✓ Lata eta pote metalikoak
- ✓ Tetrabrikak
- ✓ Aluminio-papera
- ✓ Poliespan-erretiluak



Brik eta botilak tolestuta edo konprimituta.



Papera eta kartoia

- ✓ Paperak
- ✓ Kartoia
- ✓ Egunkariak eta aldizkariak
- ✗ Plastikozko poltsak




Ongi tolestuta bota

Beira

- ✓ Botilak, tapa eta tapoirik gabe
- ✓ Potoak
- ✓ Bestelako beira-ontziak
- ✗ Kristalezko baxera eta edalontziak

BAI

EZ



Tapa eta tapoirik gabe



Etxeko olio erabilia


- ✓ Sukaldeko olioak, plastikozko ontzitan, behar bezala itxita.

Ontziak behar bezala itxi

Jantziak, ehunak eta oinetakoak

- ✓ Arropa
- ✓ Ehunak eta oinetakoak, egoera onean zein txarrean

Erabiltzen ez dituzun arropa eta oinetakoak utzi eta Emausko Trapuketariak berreskuratuko dituzte.



Tamaina handikoen bilketa

- ✓ Altzariak
- ✓ Tresna elektriko eta elektronikoak
- ✓ Koltxoak eta somierrak
- ✓ Arropa eta oinetakoak
- ✓ Etxeko beste objektu batzuk




Zure etxeko atetik jasoko zaizkizu. Eskaera egiteko 948 981 822 telefonoan mezua utzi eta ondoren hitzordua zehaztuko dizute; edo mancomunidades@emausnavarra.org helbidera idatzi.

Birziklapen-etxolak eta garbiguneak

Oibarren, Kasedan, Irunberrin eta Zangozan aurki ditzakezu

- ✔ Tresna elektriko eta elektroniko txikiak
- ✔ Tinta- eta toner-kartutxoak
- ✔ Pilak eta bateriak
- ✔ Kontsumo txikiko bonbillak eta fluorezszenteak
- ✔ Agortu gabeko pintura eta bernizak
- ✔ Autoen olioak eta iragazkiak, ongi itxitako ontzietan.
- ✔ Erradiografiak
- ✔ Kafe-kapsulak



Ez utzi inolako hondakinik lurrean botata.

Eraikuntza-hondakinak (EEH)

Zangozako transferentzia-instalazioak obra txikiko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak (EEH) eta inausketako etxeko hondakinak hartzen ditu.

- ✔ Obra-hondakinak, harri-hondakinak, igeltsu-hondakinak, zur-hondakinak eta beira zapala



Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00-12:00,
eta larunbatetan, 08:30-10:30
Instalazioa NA-123 (Zangoza-Oibar) errepidean dago kokatuta.

OHIKO ZALANTZA ETA GALDERAK

Nola bereizten ahal dut organikoa etxean?

Bi erataraz egin dezakezu: bata, kubo marroi berri bat jarri eta organikoa bertan bota, bestea, sukaldeko ohiko edukiontzia organikoa botatzen jarraitzeko erabili eta beste kubo txiki berri batean errefusa bota.

Materia organikoa kontenedorera poltsarik gabe bota dezaket?

Ez, hobe da poltsa erabiltzea, zikinkeria eta usain txarrak saihesteko.

Edozein poltsa erabil dezaket?

Bai, edozein poltsa mota erabili daiteke.

Zergatik du edukiontziak hain tapa txikia?

Horrela errazago ireki eta erosoago erabiltzen baita. Gainera, onartzen ez diren hondakinak edo inpropioak eduki ditzaketen poltsa handien sarrera ekiditen da.

Etxean konposta egin dezaket?

Bai, baldin eta etxebizitza Zangozaldekoa bada eta berdegunea badu (baratzea edo lorategia). Eman izena mankomunitatean.

Eta konpostaje komunitarioa?

Bai, etxe-kopuru jakin bat biltzen bada.



MANCOMUNIDAD
COMARCA DE
SANGÜESA

☎ 948 871 247
✉ mancomunidad@mscs.es

📷 📺 🐦 📺
@ComarcaSanguesa